

## **ADINEKOENDAKO ZAINZA SAREA HERRIZ HERRI**

### **Adinekoak eta boluntarioak uztartzen duen zerbitzua**

#### **Bidelagun Elkarte**

Bidelagun elkarteak kanpaina ibiltari bat hasi behar du herriz herri bi **helburu**ekin:

1. Boluntarioak bilatu, bertan bertakoekin.
2. Adineko jendeari zerbitzu zerrenda bat eskaini beraien ongizatea hobetzeko.

Bidelagun elkarteak eskaini nahi duen zerbitzua solidaritatean datza, hau da, herriko jendearen konpromisoa lortu nahi du, gazte, jubilatu edo denbora eskaintzeko borondatea duten pertsonak bertzeen zerbitzura paratuz.

#### **Zer eskaintzen da:**

1. Zerbitzu zerrenda bat.
2. Boluntarioen zerrenda bat.  
Herri bakoitzean boluntario poltsa bat osatu. Boluntario bakoitza aukeratuko du zerbitzu zerrendatik laguntzeko prest dagoen zerbitzu hori.
3. Koordinazio zerbitzu bat.  
Telefono bat eskaerak jasotzeko eta eskatutako zerbitzuetarako boluntarioak bilatzeko.
4. Seguru bat.
5. Formazioa.

#### **Norentzako dira zerbitzuak.**

Adineko pertsonendako:

- \* bakardadean bizi direnendako
- \* bakarrik bizi diren bikoteentzako: zaintzailea ordezkatzeko.
- \* eritasun bat pasatzen ari direnentzako eta familia sarerik ez dutenean.

#### **Zerbitzu zerrenda:**

1. Zaintzailea ordezkatu.
2. Kanposantura lagundu.
3. Kafe bat hartu
4. Egunkaria irakurri.
5. Astean behin bueltatxo bat eman herrian barrena.
6. Ile-apaindegira lagundu.
7. Podologora eraman.
8. Etxean egon ordutxo bat.
9. Errehabilitaziora eraman.

10. Bertan egiten diren ekitaldi kulturaletara eraman.
11. Bizikletan paseora atera.
12. Ondoko herrietara eraman.
13. Osasunbideak eskualdean dituen zerbitzuetara lagundu.
14. Iruñean bizi ba zara, herriko ospitaleratuak bisitatu.
15. Mandatuak egiten lagundu.

### **Boluntarioak**

- 1- Aukeratuko dute zer zerbitzuetan dauden prest bere denbora eskaintzeko.
- 2- Herrian bertan eta inguruetako herrietan zerbitzatzeko prest dauden.
- 3- Zer boluntario dauden prest bere kotxea eskaintzeko.
- 4- Askatasun osoa ezetza emateko. Egun batean zerbitzua ematea ezinezkoa bada, boluntario zerrendara joko da ordezkoa bilatzeko.

### **Formazioa**

1. Talde bakoitzari oinarrizko formazioa bat eskainiko zaio: konfidentzialtasuna, bolondresen eskubideak eta betebeharrak, elkarren arteko hartu-emanak eta abar landuz.
2. Bizikleta elektrikoa ibiltzeko formazio berezia (Bizikleta lortzekin)

### **Koordinazioa.**

Hurrengo pausuak emanen dira:

- + Eskatzaileak elkartera deituko du, eta boluntario zerrendatik dauzkagun boluntarioak hautatuko ditugu eskatutako zerbitzua aurrera ahal izateko.
- + Edo herri bakoitzean arduradun bat prestatu eskaerak jasotzeko eta elkartera bideratu koordinazio lanak martxan paratzeko.
- + Herrietako osasun-zentroek eta anbulatorioek zerbitzu-zerrenda jakinarazi ahal izango diete interesdunei.

**Sarearen parte izan nahi baduzu, dokumentu honekin batera bidaltzen den agiria irakurri, bete, hautatu eta siñatu. Eskaneatuta edo/eta helbide honetara bidali. Zurekin harremanetan jarriko gara.**

**[bidelagun@hotmail.com](mailto:bidelagun@hotmail.com)**